




BILINTXEN MENDA

BERTSO HAMABOSTALDIA

2024ko apirilaren 19tik maiatzaren 2ra



2021ean antolatu zuten Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuak eta Donostia Kulturak **Bilintxen Menda** izeneko bertso hamabostaldia, Bilintx bertsolari handiaren jaiotzaren 190. urtemugaren karietara. Beste ardatz baten gainean, baina helburu eta borondate berbera dakar bigarren honek ere: Donostiak historikoki bertso-plaza gisa izan duen garrantzia aldarrikatu, bertsozaleei gozatzeko paradak eskaini eta bertso-gintzaren zenbait erpini buruzko gogoeta egin.

Oraingoan antolakuntzara San Telmo Museoa ere batuta, txapelketa izango da aurtengo jardunaldien ardatz, eta lau saiok osatzen dute programa.



TXAPELDUNEN BERTSO SAIOA

BERTSO EMANALDIA

Bost dira Txapelketa Nagusia irabazia dutenen artetik bizirik segitzen duten bertsolariak. Xabier Amurizak aspaldixko utzi zituen plazak, gainerakoek sasoi betean jarraitzen dute eta Donostian kantatuko dute.

Bertsolariak
Ametz Artzallus
Andoni Egaña
Maialen Lujanbio
Sebastian Lizaso

Gai-jartzailea
Ainhoa Larretxea

Imanol Larzabal Aretoa (Lugaritz)

Apirilak **19. 19:30**

5 €

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean, antzokietako leihatiletan, eta Lugaritz K.E.n saioa hasi baino ordu bete lehenago



EGO ETA HEGO: TXAPELKETAKO EDUKIEI BEGIRATU BAT TXALODEPENDENTZIAREN IKUSPEGITIK

JON SARASUA

HITZALDIA

Jon Sarasua bertsolari handia da. Plazetatik kanpo bada ere, bertsolaritzarekin lotuta segitzen du, eta haren begirada zoliak eta arrazoiketa sakonak beti sortzen dituzte gogoetarako printzak. Txapelketez eta bertsolariez arituko da Donostiako bertso hamabostaldian, **Xabier Euzkitzek** aurkeztuko duen saioan.

Ernest Lluch K.E.

Apirilak **24. 19:00**

Sarrera librea aretoa bete arte



BERTSOLARI TXAPELKETEN ANTOLOGIA KANTATUA

HITZALDI MUSIKATUA


1935etik 1967ra bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusietan zeharreko bidaia bat, gaur egungo bost bertsolariaren ahots eta begiradetatik egin. Bertsolari Txapelketa bakoitzak bere garaiko gai, ikuspegi eta ahotsak bildu ohi ditu. Emanaldi honetan garai bakoitzean kantatzen zenaren eta gaur egun kantatuko litzatekeenaren arteko ispilujoko bat osatuko dute **Beñat Gaztelumendi**, **Oihana Iguaran**, **Unai Agirre**, **Nerea Ibartzabal** eta **Aner Euzkitze** bertsolariak, **Gari Otamendi** eta **Ixak Arrutiren** musikak lagunduta. **Aizpea Goenaga** arituko da aurkezle lanean.

Antzoki Zaharra

Apirilak **28. 19:00**

5 €

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean eta antzokietako leihatiletan



GAI-JARTZAILETZAREN BILAKAERA

MAHAI-INGURUA

Bertsolaritzak ez du aldatu eta moldatu gabeko alorrik. Gaiak landu eta jartzeko moduek ere bilakaera ukazina izan dute. Hiru belaunalditako gai-jartzaileak izango ditugu, garaian garaiko gai-jartze moduez eta ikuspegiez solasean. **Joxemari Iriondo**, **Laxaro Azkune** eta **Maite Berriozabal** izango dira solaskideak, **Xabier Euzkitzek** gidatutako saioan.

San Telmo Museoa

Maiatzak **2. 19:00**

Sarrera librea aretoa bete arte

Antzoki Zaharra

Kale Nagusia, 1 bis.

T. 943 48 19 70

E. az_taquilla@donostia.eus

Astelehenetik ostiralera: 11:30-13:30

Ekitaldi egunetan: 11:30-13:30 / 17:00-20:00

Asteburu eta jaiegunetan itxita

Imanol Larzabal (Lugaritz)

Heriz pasealekua, 20

T. 943 31 07 80

E. lugaritzkulturetxea@donostia.eus

Ernest Lluch K.E.

Anoeta pasealekua, 13

T. 943 48 19 19

E. amarakulturetxea@donostia.eus

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza, 1

T. 943 48 15 80

E. santelmo@donostia.eus

donostiakultura.eus/sarrerak

